

DEIALDIAREN BERARIAZKO

9.ZK. ERANSKINA

SORKUNTZA EKINTZAK

SUSTAPENARI

DIRULAGUNTZAK

EMATEKO DEIALDIA

ANEXO ESPECÍFICO DE CONVOCATORIA N° 9

CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LA PROMOCIÓN DE ACTIVIDADES DE CREACIÓN

1. AURREKONTU KREDITUA

4.000 euro.

1 0510.481.01.334.30 aurrekontu aplikazioari lotuta dagoen A-335/2023 agiri kontablearen kargura finantzatzen da.

1. CRÉDITO PRESUPUESTARIO

4.000 euros.

Se financia con cargo al documento contable A-335/2023 que está imputada a la aplicación presupuestaria 1 0510.481.01.334.30.

2. HELBURUA

Deialdi honen xedea da pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntza ekonomikoen emakida arautzea, sorkuntza ekintzak sustapena jarduerak garatzeko eta egiteko, betiere haien proiektioagatik eta interesagatik Irungo Udalaren helburuekin bat egiten badute.

- Oinarri gisa baliabide eta hizkuntza garaikideak erabiltzen dituztenak.
- Diziplinarteko izaera dutenak.
- Irunen egitea.

2. OBJETO

Es objeto de la presente Convocatoria, la regulación del acceso y concesión de las ayudas económicas a personas físicas o jurídicas, para el desarrollo y realización de proyectos, procesos de creación o programas que reúnan las siguientes características:

- Que tengan como base la utilización de herramientas y lenguajes contemporáneos.
- Que tengan carácter interdisciplinar.
- Que se desarrollen en Irun.

Interes berezikoak dira ikus-entzunezko eta transmedia hizkuntzak, diseinua, teknologia berriak, dantza, antzerkia eta moda erabiltzen dituztenak, bai eta joera berriak eta memoria kolektiboaren eraikuntza azpimarratzen duten gaiak ere.

Laguntza horiek urteko izaeraz banatuko dira, eta gauzatutako ohizko jardueren arabera.

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Norgehiagoka.

4. ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK

Honako hauek lor dezakete onuradun izaera, honako betekizun hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek zein juridikoek:

- Egoitza Irungo udalerrian errotuta edukitzea. Pertsona fisikoa denean, Irunen erroladatuta egotea.
- Eusko Jaurlaritzako dagokion erregistroan inskribatuta egotea, forma juridikoaren arabera.

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Irundik kanpo errotuta dauden pertsona fisikoek eta juridikoek, baldin eta beren jardueraren zati nabarmena udalerrri honetan egiten badute edo hiriarentzat interesgarria dela irizten bazaio.

Son de interés específico los que utilicen los lenguajes audiovisuales y transmedia, diseño, nuevas tecnologías, danza, teatro y moda, así como los temas que pongan en valor las nuevas tendencias y la construcción de memoria colectiva.

Estas ayudas se distribuirán con carácter anual y en función de las actividades ordinarias llevadas a cabo.

3. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Concurrencia competitiva.

4. REQUISITOS PARA OBTENER LA CONDICIÓN DE BENEFICIARIO

Podrán adquirir la condición de beneficiario las personas físicas o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos:

- Tener la sede social en el municipio de Irun. Si son personas físicas, estar empadronadas en Irun.
- Estar inscrita en el correspondiente registro del Gobierno Vasco de acuerdo con su forma jurídica.

Podrán también acceder a las ayudas las personas físicas o jurídicas radicadas fuera de Irun, cuando sus proyectos tengan como tema de trabajo la ciudad de Irun o su ciudadanía.

5. ESPEDIENTEA BIDERATZEA, ERABAKIA HARTZEA ETA JAKINARAZTEA

Prozedurak bideratzea Kultura Teknikariaren lana izango da.

Emateko prozedura erabakitzea Alkate-Lehendakariaren edo ordezkaritza jasotzen duen Organoaren eskumena da, aurretik balorazio-batzordearen txostena eginda.

6. BALORAZIO BATZARRAREN OSAKETA

Balorazio-batzorde bat eratuko da, eskaerak aztertzeko ematea proposatzeko. Honako hauek izango dira batzordea osatuko dutenak:

- Bi Kultura teknikari.
- Kultura eta Kirol Arloko zuzendaria.

7. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA

Deialdiaren baldintza orokorretan adierazitako dokumentazioaz gain, eskaerei erantsi beharko zaie:

5. INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE, RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

La instrucción de los procedimientos corresponderá al Técnico/a de Cultura.

La resolución del procedimiento de concesión es competencia del Alcalde-Presidente, u Órgano en quien delegue, previo informe de la Comisión de Valoración.

6. COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN

Se constituirá una Comisión de Valoración para el análisis de las solicitudes y propuesta de concesión compuesta por:

- Dos Técnicas/os de Cultura.
- Director/a del Área de Cultura y Deportes.

7. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

8. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A PRESENTAR EN LA SOLICITUD

Además de la documentación indicada en las condiciones generales de la convocatoria, las solicitudes deberán acompañarse de:

- Ebaluazio- eta dirulaguntzak emateko irizpide-fitxa (berariazko ereduaren arabera).
- Proiektua eta helburuak jasotzen dituen deskribapen-memoria bat, gehienez ere 20 foliokoa, baloraziorako lagungarriak izan litezkeen irudi, argazki, zirriborro edo marrazkiz hornitua.
- Proiektuaren, sorkuntza prozesuaren edo proposatutako programaren garapen eta gauzapeanari buruzko kronograma.
- Pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen deskribapen kurrikularra edo jardueraren inguruko dokumentu-zorroa, ibilbidea eta gauzatuak dituen lanak egiaztatzeko.
- Ficha de evaluación y criterios de concesión de las subvenciones (según modelo específico).
- Una memoria descriptiva de proyecto y objetivos con un máximo de 20 folios que incluya imágenes, fotos, bocetos o dibujos que ayuden a su valoración.
- Un cronograma del desarrollo y realización del proyecto, proceso de creación o programa propuesto.
- Una descripción curricular o portfolio de actividad que acredite la trayectoria y trabajos realizados por la persona física o jurídica solicitante.

9. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzaren aukera izateko, gutxienez orotariko puntuazio maximoaren 50 puntu lortu beharko dira. Haren zenbatekoa eta baremoak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

a) Proposatzen den proiektu/programaren ezaugarriak, sorkuntza-prozesua edo proposatutako egitaraua gehienez 70 puntu, honako alderdi hauen arabera:

- a.1) Memoria historikoaren edo memoria kolektiboaren eraikuntzaren inguruko lan-proposamena. (12 puntu)

9. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Para poder optar a las subvenciones se deberán obtener en el conjunto al menos 50 puntos de la puntuación máxima establecida en los baremos de los criterios particulares. Dichos baremos serán los siguientes:

a) Características del proyecto/programa, proceso de creación o programa propuesto, hasta 70 puntos, según los siguientes aspectos:

- a.1) La propuesta de trabajo de la memoria histórica o la construcción de memoria colectiva. (12 puntos)

- | | |
|---|--|
| <p>a.2) Hiria eta hiritartasunaren balioa azpimarratzea. (12 puntu)</p> <p>a.3) Tokiko kolektiboekin egiten den lana. (12 puntu)</p> <p>a.4) Kulturantzaketa, lankidetzak izaera eta bertako ehun ekonomikoan eta artistikoan duen elkarrengatza. (12 puntu)</p> <p>a.5) Hiriko kultur ekipamenduen balioa azpimarratzea. (12 puntu)</p> <p>a.6) Prozesuaren inguruko artxibo bat sortzea. (10 puntu)</p> <p>b) Pertsona fisiko edo juridiko eskaeragilearen ezaugarriak, gehienez 20 puntu, honako alderdi hauen arabera:</p> <p>b.1) Pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen kualifikazioa, bereziki hauei dagokienez: diziplinarteko lana, ibilbidea eta aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta (kurrikuluma, dokumentu-zorroa...) baloratuko diren beste proiektu batzuetan izandako partaidetza. (20 puntu).</p> <p>c) Proiektu edo egitarauaren aurrekontua 20 puntu arteraino, honako alderdi hauen arabera:</p> <p>c.1) Aurrekontuan kontzeptu guztietan azaltzen den banakatzeko maila eta horren proportzionalitatea (10 puntu).</p> | <p>a.2) La puesta en valor de la ciudad y la ciudadanía. (12 puntos)</p> <p>a.3) El trabajo con colectivos locales. (12 puntos)</p> <p>a.4) La interacción multicultural, en el carácter cooperativo y en el tejido económico local y artístico. (12 puntos)</p> <p>a.5) La puesta en valor de los equipamientos culturales de la ciudad. (12 puntos)</p> <p>a.6) La producción de un archivo del proceso. (10 puntos)</p> <p>b) Características de la persona física o jurídica solicitante, hasta 20 puntos, según los siguientes aspectos:</p> <p>b.1) Cualificación de la persona física o jurídica solicitante, especialmente en lo relativo al trabajo interdisciplinar, trayectoria y participación en otros proyectos a valorar en base a la documentación presentada (currículum, portfolio...). (20 puntos).</p> <p>c) Presupuesto del proyecto o programa, hasta 20 puntos, según los siguientes aspectos:</p> <p>c.1) Grado de detalle de la información del presupuesto en los diferentes conceptos y proporcionalidad del mismo (10 puntos).</p> |
|---|--|

c.2) Aurkeztutako programaren edo proiektuaren autofinantzatze maila (10 puntu).

d) Generoaren inguruan duen politika, gehienez 10 puntu, alderdi hauen arabera:

d.1) Emakumeei kultur-sormenaren alorrean ikusgarritasun handiagoa ematearren, positiboki baloratuko da emakumearen partaidetza bizitza soziokulturean espresuki bultzatzen duten ekintzak eta programak izatea eta emakumea zuzendaritza eginkizunetan integratzea, emakumeek sustatutako eta bultzatutako proposamenak izatea.

**Jarduera berreen kasuan ("berritzat" hartuko dira aureko urtean egin ez diren ekitaldiak edo jarduerak), denboran dagoeneko finkatuta dauden jardueren egonkortasuna eta lehenetsia emate aldera, Udalak baztertu ahalko ditu eskabideak.*

10. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GASTUA

Dirulaguntza honen ondorioetarako, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezkoak diren gastuak.

Dagokionean, ematen den diru laguntzaren %20 justifikatu ahalko dute gehienez ere, hasiera batean aurkeztutako proiektuak aurreikusten bazituen betiere, horrelako gastuak:

c.2) Grado de autofinanciación del proyecto o programa propuesto (10 puntos).

d) Política de género, hasta 10 puntos, según los siguientes aspectos:

d.1) Con objeto de dar más visibilidad a las mujeres en el ámbito de la creación cultural se valorará positivamente la presencia de acciones y programas que impulsen expresamente la participación de la mujer en la vida sociocultural y su integración en la tareas directivas propuestas promovidas e impulsadas por mujeres.

**En el caso de actividades nuevas (considerándose "nuevas" eventos o actividades que no se hubieran desarrollado en el año anterior), el Ayuntamiento podrá excluir las solicitudes con motivo de otorgar estabilidad y prioridad a las actividades ya consolidadas en el tiempo.*

10. GASTO SUBVENCIONABLE

A los efectos de esta subvención, se considera gasto subvencionable, los gastos necesarios para el desarrollo de la actividad objeto de subvención.

Podrá justificarse hasta un máximo del 20% de la subvención concedida y siempre que hubieran sido contemplados en el proyecto inicialmente presentado los siguientes gastos:

- Administrazioako, antolamenduko, barneko berezko eta horrelako kostuak.
- Bazkarien, afarien edo ostalaritzako zerbitzuek berezko beste batzuetan kostuak, parte-hartzaileei dagokienez sortu ditren eta diru lagundutako jarduerarekin zuzeneko zerikusia duten gastuak izan ezik. Jarduera horren antolatzaileena ez da kontuan izango.
- Costes internos de administración, organización, propios, etc.
- Costes de comidas, cenas u otros propios de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a las personas participantes y que tenga que ver directamente con la actividad subvencionada, con exclusión de las personas organizadoras de dicha actividad.

Salbuespen gisa, aurkeztutako proiektua jarduera multzo batean sartzen ez bada, berezko berezitasuna badu eta jarduera garatzean gerta daitezkeen gorabeherak estaltzeko aseguru-poliza bat kontratatzea aurreikusten badu gastu bakar gisa, gastu hori oso-osorik diruz lagundu ahal izango da, eranskin honetako kontsignazioaren kargura, espedientearen instrukzio-organismoak proposatuta.

Con carácter excepcional, cuando el proyecto presentado no se integre en un conjunto de actividades, posea una singularidad propia y prevea como único gasto a incurrir la contratación de una póliza de seguro para cubrir las incidencias que puedan tener lugar en el desarrollo de la actividad, este gasto podrá ser íntegramente subvencionable con cargo a la consignación del presente anexo a propuesta del órgano instructor del expediente

11. JASOKO DEN ZENBATEKOAREN KALKULUA

Eskatutako kopuruen batuketa eskuragarri dagoen kreditua baino handiagoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutako kopuruaren kenketatik kalkulatuko da, ondoko formula aplikatzearen emaitza gisa:

11. CÁLCULO DE LA CUANTÍA A PERCIBIR

En el caso de que la suma de las cantidades solicitadas exceda el crédito disponible, la cuantía de la subvención se obtendrá de la deducción de la cantidad solicitada como resultado de la aplicación de la siguiente fórmula:

$$I = \frac{Q}{P} \times p$$

Non,

Q = Eskatutako kopuruen batuketaren eta eskuragarri dagoen kredituaren kenketaren emaitza.

P = Eskabide guztien zatiduraren batuketa.

p = Eskatutako kopuruaren eta lortutako puntuazioaren zatidura.

I = Eskatutako kopuruari kendu beharreko zenbatekoa.

Nolanahi ere, entitate batek dirulaguntza kontzeptuan jasoko duen zenbatekorik altuena 3.000 eurokoa izango da.

Donde,

Q = La diferencia entre la suma de cantidades solicitadas y el crédito disponible.

P = suma de los cocientes de todas las solicitudes.

p = cociente entre la cantidad solicitada y la puntuación obtenida.

I = Importe a deducir sobre la cantidad solicitada

En todo caso, la cuantía máxima a percibir por una entidad en concepto de subvención será de 3.000 euros.

12. BALIABIDEAK BIRBANATZEA

Deialdiaren baldintza orokorretan aurreikusitako egoeren arabera, baliabideen birbanatzea egitea dagokionean, ondorengo dirulaguntza lerroetara birbanatu ahal izango da:

- Beste eremu batzuetako jardueren sustapena.
- Abesbatza musikaren sustapena.

12. REASIGNACIÓN DE RECURSOS

En los casos que, conforme a los supuestos previstos en las condiciones generales de la convocatoria proceda realizar reasignación de los recursos, se podrá reasignar a las siguientes líneas de subvenciones:

- Promoción de actividades en otros ámbitos culturales.
- Promoción de la música coral.

13. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAK AURKEZTEKO EPEA

Gastuaren zuriketa aurkezteko epea beranduenez 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

13. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

El plazo de presentación de la justificación del gasto será como máximo el 31 de enero del 2024.

14. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdiaren Baldintza Orokorretan adierazitako dokumentazioa.

14. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR EN LA JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

La documentación indicada en las Condiciones Generales de la convocatoria.

15. DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA

Ordainketa bi txandatan egingo da, betiere aurretik dagozkion administrazio-izapideak eginda.

Haietako lehena, onetsitako dirulaguntzaren guztizko kopuruaren %80 zenbatekoa.

Bigarren ekarpena, gainerako %20ari dagokiona, pertsona fisiko eta juridiko jasotzaileek egiaztapen-dokumentazioa aurkeztu ondoren, hala badagokio, ordainduko da.

15. ABONO DE LAS SUBVENCIONES

El abono se hará en dos entregas, siempre previa realización de los trámites administrativos correspondientes.

La primera de ellas, por importe del 80 % de la cantidad total de la subvención aprobada.

La segunda aportación, por el 20 % restante, se abonará, en su caso, una vez presentada por las personas físicas y jurídicas receptoras la documentación justificativa.